

# EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

## Euskal ekonomia hondoratu egin zen urteko lehen hiruhilekoan

### BARNE PRODUKTU GORDINA


Urte arteko aldakuntza tasa

#### URTE ARTEKO BPG-A

1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA

**-%3,0**

Eustatek argitaratzen dituen kontu ekonomikoen aurre-rapenak adierazten du EAEko ekonomia -%3,0 hondoratu zela aurtengo lehen hiruhilekoan, urte arteko tasan. Covid-19ko pandemiaren ondorioz martxoko bigarren hamabostalditik aurrera hartutako neurri bereziek aurrerarik ez duen eta nekez aurreikus zitekeen jarduera ekonomikoaren uzkurdura izugarria ekarri dute berekin. Beherakada garrantzitsu horrek nabarmen gaintitzen ditu Eusko Jaurlaritzak egindako kalkuluak (% 0,1), konfi-



namendua hilabete batez luzatuko zela aurreikusten baitzuen. Hiruhileko arteko tasetan, bilakaera are okerragoa izan zen; izan ere, beherakada -%4,5era arte zabaldu zen. Tasa hori ez da lehenago ezagutu EAEko azken aldiko historian. Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, atzerakada hori orokorra izan da sektore guztietan, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin, martxoaren azken bi asteetan ekoizpen jardueretan izandako aldaketa edo geldiarazte efektuen ondorioz.


### BARNE PRODUKTU GORDINA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

#### HIRUHILEKO ARTEKO BPG-A

1<sub>GO</sub> HIRUHILABETEA

**-%4,5**



## ENPLEGUA


Urte arteko aldakuntza tasa

### URTE ARTEKO ENPLEGUA

1<sub>G0</sub> HIRUHILABETEA

**-%3,1**

Lan merkatuari dagokionez, enpleguaren uzurtzea, urte arteko tasan, -% 3,1era iritsi zen. Enpleguaren beherakada handi horren arrazoia, neurri handi batean, martxoaren erdialdetik aurrera hartu diren ERTE kopuru handia da. Datu hori ere ez dator bat Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenarekin. Izan ere, aurreko erregistroekin alderatuta, enplegu sorreraren beherakada handia jasotzen zuen (%1,3ko jaitsiera aurreikusten zen), baina Eustatek kalkulaturako datutik urrun dago. Hiruhileko arteko datuei dagokienez, enplegua % 4,1 jaitsi da.



Bilakaera ekonomikoak duela aste batzuk espero zena baino askoz okerragoa dirudien arren, Eustatek ohartarazi du EAEko jarduera ekonomikoari buruzko lehen kalkulu horiek, konfinamendu aldiaren zati bat barne hartzen dutenak, "zuhurtziaz" aztertu behar direla. Hain zuzen ere, eragile ekonomiko guztiak azken asteetan bizitzen ari diren egoera oso konplikatuarekin, zaila da kalkulu ekonomiko ororen oinarri den informazioa biltzea, are gehiago sisteman zenbait adierazleren aurreikuspenak sartzen direnean.


## ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

### HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA

1<sub>G0</sub> HIRUHILABETEA

**-%4,1**



Iturria: Eustat.